

05.

VANDANA SHIVA



Dehradun-en jaio zen. Aita kontserbazionista bat izan zen, eta amak nekazaritzan lan egin zuen; horregatik, Vandanak beti harreman handia izan zuen naturarekin. Fisikan graduatu zen, eta geroago masterra egin zuen zientziaren filosofian.

Teknologia zientifikoak ingurumenean duen eragina zalantzan jartzen hasi zen, eta **1982an Research Foundation of Science, Technology and Ecology** erakundea sortu zuen; erakundeak bioaniztasunaren kontserbazioan lan egiten du.

"Zuhaitzak eta landareak gure aliatuak dira. Haietatik ikasten badugu izango gara aske."

Vandana Shiva



Shiva Indiako eta beste herrialde batzuetako zenbait gobernu-erakunderen aholkularia izan da. Bere herrialdean eta nazioartean, **15 sari baino gehiago jaso ditu**, kontzientzia ekologikoan eta ingurumen-zaintzan egindako ekarpenarengatik; haien artean, 1993an, Right Livelihood Award jaso zuen (**ordezko Nobel Saria ere esaten zaio**), "...emakumea eta ekologia garapen modernoaren azterketarako ardaztat hartzeagatik". "Ekofeministatzat" jotzen dute, eragin handia duelako genero-gaietan. Hainbat liburu eta artikulu argitaratu ditu, garapen-bidean dauden herrialdeetan emakumeari buruzko ikuspegia aldatzeko, haiek lortutakoak aitortzearen bidez.

Idatzi dituen liburuen artean, hauek nabarmentzen dira: *Abrazar la vida: mujer, ecología y desarrollo*. *Biopiratería: el saqueo de la naturaleza y del conocimiento*.



Emakumeak
Indian
Garapenaren eragile



ALBOAN